

Foru Aldundiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen beste EPE bat onetsi du, 61 lanposturekin

39 plaza erizain laguntzaileenak dira, 12 administrarietak eta 10 erizainenak

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a. Foru Gobernu Kontseiluak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintza onetsi du gaur, hiru kategoriatan banatutako 61 plazarekin; horietatik 39 erizaintzako laguntzaileei dagozkie, 12 administrarietarako eta beste 10 erizainetarako. 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdiak ahalik eta gehien aprobetxatzen du legez ezarritako birjartze tasa.

61 plaza horietatik guztietatik, 54 txanda librekoak izango dira, eta gainerako biak barne sustapenekoak. Hogeita sei plazak derrigortasun datadun euskararen hizkuntza eskakizuna izango dute.

Legeak agintzen duenez, 4 plaza, hau da, % 7, desgaituentzat gordeko dira. Plaza horietatik bat adimen desgaitasuna duten pertsonentzat izango da. Azken plaza horretarako, deialdi espezifikoak egingo dira, aurreko EPEetan adimen desgaitasuna dutenentzat gordetako plazekin batera.

Gaur onetsitako erizain laguntzaileen plazei 2019ko eta 2020ko EPEen aurreko deialdietako lanpostu hutsak gehituko zaizkie, koronabirusaren pandemia dela-eta ezin izan baitziren deialdiak garatu; beraz, kategoria horretan 119 plaza metatu dira guztira.

Arabako Foru Aldundiak azken sei urteetan onetsi duen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren seigarren eskaintza da, plantilla berritzeko eta enplegua egonkortzeko asmoz egingo da; horrela bada, 2016. urtetik hona 520 lanposturen deialdia egin da hainbat kategoriatan.

Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako 5 plazari buruzko enplegu publikoaren eskaintza onetsi du foru aldundiak

Hautaketa prozesua 2022. urtean egingo da

Foru Gobernuak gaur onetsi du Administrazio Orokorreko bost plazaren enplegu publikoaren eskaintza, adimen desgaitasuna duten pertsonentzat berariaz erreserbatua. Bost plaza horien hautaketa prozesua, denak ere zerbitzu orokorretako laguntzaileen laguntzaileei dagozkienak, 2022. urtean egingo da.

Deialdi hori, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuz egin da.

Dekretu horrek ezartzen du EPEetako plazen, gutxienez, ehuneko zazpi desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuko direla eta eskainitako plazen ehuneko bi, gutxienez, adimen desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak bete behar dituztela. Era berean, zehazten du plaza horiek sarrera arrunteko deialdietatik aparteko txanda batean deitu daitezkeela.

Plaza horien hautaketa prozesuan parte hartzen dutenek egiaztatu beharko dute % 33ko edo gehiagoko adimen desgaitasuna aitortuta dutela.

EPE hau iragan abenduaren 21ean 52 plazarekin onetsitakoari gehitzen zaio.

Foru Aldundiak 1.500.000 euro baino gehiago bideratu ditu Arabako mendien ingurumen- eta ekonomia-balioa handitzeko

Arabako Foru Aldundiak 1.575.000 euro erabiltzea onartu du, 2022. eta 2023. urteetan Arabako mendietako baso-aberastasuna babesteko inbertsioak egiteko. Igoera nabarmena izan da Arabako mendien ingurumen- eta ekonomia-balioa handitzeko azken zenbatekoarekin alderatuta, baso-laguntzen planaren bidez.

Laguntza-lerro hori hiru neurritan banatzen da. Lehenengoak, mendi publikoei zuzendutakoak, 915.000 euro izango ditu, eta honako hauek erabili ahal izango dira:

- Suteek, hondamendi naturalek eta hondamendiek basoetan eragindako kalteak konpontzea
- Suteek, hondamendi naturalek eta hondamendiek basoetan eragindako kalteak prebenitzea.
- Baso-eremuak basotzea eta sortzea
- Garapenerako eta modernizaziorako azpiegituretako inbertsioak
- Basogintza-sektorea egokitzea
- Inbertsioak baso-teknologietan eta baso-eraldaketan, -mobilizazioan eta -merkaturatzean, edo baso-potentziala hobetzeko inbertsioak
- Basoak kontserbatzea

Gainera, bigarren neurria mugaketa eta mugarrak jartzeko lanetarako izango da, 175.000 euroko inbertsioekin baso-ekosistemen egokitzapen-gaitasuna eta ingurumen-balioa handitzeko.

Hirugarrenak, mendi partikularrei zuzendutakoak (485.000 euro), eta mendi publikoekin gertatzen den bezala, helburu hauek ditu: biodibertsitatea lehengoratzzea eta modu aktiboan kontserbatzea, baso-produktuen lehiakortasuna bultzatzea, baso-masen erresilientzia handitzea hondamendi eta suteen aurrean, eta nekazaritza-paisaia kontserbatzen laguntzea.

Inbertsio horiek honako jarduera garrantzitsuenetan oinarrituko dira:

- Suteek, hondamendi naturalek eta hondamendiek basoetan eragindako kalteak konpontzea
- Suteek, hondamendi naturalek eta hondamendiek basoetan eragindako kalteak prebenitzea.
- Baso-eremuak basotzea eta sortzea
- Inbertsioak baso-teknologietan eta baso-eraldaketan, -mobilizazioan eta -merkaturatzean, edo baso-potentziala hobetzeko inbertsioak

Laguntza horiek 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruan daude, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatzen ditu.

Eskabideei, eskakizunei, aurkezteko epeei eta laguntzen zenbatekoari buruzko informazio guztia hemen kontsulta daiteke:

http://www.araba.eus/cs/Satellite? C = DPA_procedimiento_FA & cid = 1224020218539 & language = es_ES & pageid = 1193045562441 & pagename = DiputacionAlava%2FDPA_procedimiento_FA%2FDPA_procedimientos

Foru Aldundiak Laudioko hornidura hobetuko du eta Murgako biltegia erabiliko du

Egin beharreko obren bidez Laudiori Murgako biltegiaren gehiegizko edukiera emango zaio Maroñoko urtegitik ur gordina ematen duen egungo hodira lotuta egingo da

Jarduketa hori Hornidura eta Saneamendurako 2016-2026ko Plan Zuzentzailearen barruan programatuta dago

Gobernu Kontseiluak Murgako biltegia aprobetxatzeko proiektua onetsi du, Laudioko hornidura hobetzeko. Egun, udalerrriak defizita du horniduraren erregulazio azpiegiturretan, eta, aldez aurretik hainbat azterketa eta ikerketa egin ondoren, uste da gabezia hori osatzeko aukerarik onena Murgako industrialdeko ur biltegia erabiltzea dela.

2.500 m³-ko azpiegitura da, eta handiegia da gaur egun ematen zaion erabilerarako. Jarduketa honen bidez, osatu egiten da Laudioko egungo erregulazio egitura, Ugarte eta San Bartolome auzoetan dauden biltegiek eskaintzen diotena.

Egin beharreko obren bidez, Murgako biltegiaren gehiegizko edukiera esleitu nahi zaio Laudiori, Maroñoko urtegitik ur gordina hornitzen duen egungo hodira konektatuta. Aldez aurretik Izoriako edateko uren araztegiarekin (edateko ura tratatzeko estazioa) konektatuko da, eta horrela estazio horretatik tratatutako ura eskainiko da.

Lan horiek egiteko, erabaki da komenigarria dela Izoriako EUA bere egungo kokalekuan egotea, nahiz eta etorkizunean birmoldatu eta handitu egin beharko den. Obra horiei esker, beraz, edateko uren araztegi horretatik hornitu ahal izango dira Laudio eta Luiaondo.

Jarduketa hori Hornidura eta Saneamendurako 2016-2026ko Plan Zuzentzailearen barruan programatuta dago.

Obra egiteko aurrekontua, guztira, 627.525,30 eurokoa da.

Foru aldundiak bere eraikinen energia eraginkortasuna hobetuko du

575.000 euroan lizitatu du proiektuen idazketa

Arabako Foru Aldundiak bost foru eraikinen energia eraginkortasuna hobetuko du, birgaitze proiektu banaren bidez. Jauregia, Ignacio Aldecoa kultur etxea, foru ogasunaren egoitza, bulego tekniko zaharrak eta bulego tekniko berriak dira eraikin horiek.

Europako funtsekin finantzaturako Espainiako Gobernuaren Eraikin Publikoen Birgaitzea Sustatzeko Programaren barruan kokatzen dira esku hartze horiek.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du eraikin horien birgaitze energetikorako proiektuak idazteko lizitazioa, bost lotetan banatuta. Guztira 575.000 euro egiten dute.

- 1. lotea: Ignacio Aldecoa kultur etxea (Florida pasealekua, 9): 125.000 euro.
- 2. lotea. Jauregia (Probintzia plaza, z/g): 95.000 euro.
- 3. lotea. Ogasuna (Samaniego kalea, 14): 185.000 euro.
- 4. lotea. Bulego tekniko zaharrak (Probintzia Plaza, 5): 85.000 euro.
- 5. lotea. Bulego tekniko berriak (Probintzia Plaza, 85.000): euro.

Foru Aldundiak Hondakinen Behatokiaren zerbitzua esleitu du

Zerbitzuaren barruan sartzen da Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak bultzatutako informazio eta ezagutza tresnak garatzeko laguntza teknikoa.

Gobernu Kontseiluak Obsaraba ABEEri esleitu dio Hondakinen Behatokia eratzeko eta ezartzeko zerbitzua. Indarrean dagoen Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren barruko ekintza bat da, figura hori indartzea proposatzen duena.

Zerbitzuak laguntza teknikoa barne hartzen du, Planak bultzatutako informazio eta ezagutza tresnak garatzeko euskarri gisa balio duena. Helburu horretarako esleitutako aurrekontua urtean 139.677,35 eurokoa da, hiru ekitaldiko esleipen aldirako.

Hondakinen Behatokiak bost jardun eremu garatuko ditu. Duen garrantziagatik, nabarmentzekoa da Arabako hiri hondakinen urteko inbentarioa, zeinaren helburua baita ALHko hiri hondakinen ekoizpenari eta horiei emandako kudeaketari buruzko datuak biltzea.

Beste jardueretako bat da hiri hondakinen karakterizazio adierazgarriak definitzea, haien eremuak lurralde osoa hartuz. Sortutako hiri hondakinen osaera ezagutu nahi da, lurralde osoko eta kuadrilla bakoitzeko datu adierazgarriak emanez, 2018an egindako aurreko karakterizazioarekin alderatuta izan duten bilakaera jakiteko.

Ildo horretan, karakterizazio azterlanak Araban sortutako etxeko hondakinen frakzioen osaera identifikatu beharko du, haien urtaro aldaketa eta jatorria gutxienez kontuan hartuta. Era berean, tratamendu zentroetara iristen diren etxeko hondakinen frakzioen portzentajezko osaera ezagutu beharko du, baita horien urtaroko eta jatorriaren araberrako aldakuntza ere.

Zehazki, etxeko hondakinen batez besteko osaera zehaztu beharko du, lurraldeka zein kuadrillaka; eta, azterlaneko frakzio objektiboak osatzen dituzten material motak kuantifikatu beharko ditu: edukiontzi bidez bildutako hondarra, bilketa pneumatikoaren bidez bildutako hondarra, edukiontzi bidez bildutako materia organikoa, bilketa pneumatikoaren bidez jasotakoa, paper-kartoia, ontzi arinak eta beira.

Garatu beharreko beste lan eremu bat honako hau da: Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 Planaren helburuen lorpenean izandako aurrerapen mailaren urteko jarraipena eta lau urteko ebaluazioa, eta haren ekintzen ezarpena.

Era berean, zerbitzu berriak hiru urtean behin hondakinen ekobarometro bat egitea bultzatuko du, zerbitzuaren erabiltzaileen informazio, prestakuntza, sentsibilizazio eta kontzientziazio mailaren nahiz gogobetetze mailaren diagnostikorako elementu bat edukitzeko.

Foru Aldundiak genero berdintasunerako dirulaguntzak onetsi ditu, guztira 370.000 euro egingo dutenak

Laguntzak irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei zuzenduta daude, udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2022rako dirulaguntzen deialdia onetsi du, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzat. Foru erakundeak guztira 200.000 euro zuzenduko ditu helburu horretarako. Horrela, Foru Aldundiak, Arabako hirugarren sektorearekin lankidetzan eta hari laguntza emanez, berdintasuna sustatzen jarraituko du.

Era berean, onspena eman zaio Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearren Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko 2022ko ekitaldiko dirulaguntza deialdiari.

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planak modu koordinatuan, integralean eta sistematikoan jasotzen ditu gure gizartean dauden desberdintasunei heltzeko eta emakumeen eta gizonen erabateko berdintasunerako bidean aurrera egiteko jarduera ildoak, estrategiak eta tresnak. Plan hori aurten amaituko den indarraldiarekin diseinatu zen. 2021ean, plan horren ebaluazioari ekin zaio, bai eta V. Foru Plana egiteari, zeina 2022an bukatuko baita.

Hala, plan baten eta bestearen arteko denbora tartean, berdintasuna lortzeko eragin handiena duten jarduerak eta programak lehenetsiko dira, eta honako hauek nabarmenduko dira: LAIA Arabako Emakumeen Jabekuntzarako Eskola, indarkeria matxistei buruzko prebentzio eta sentsibilizazio programaren esparruko jarduerak eta kuadrillen I. Plana garatzea eta ezartzea.

Lankidetzaren berriak da Laudioekin eta Arabako Lautadako eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrillekin, genero indarkeriaren biktimak artatzeko

Foru Gobernu Kontseiluak lankidetzaren hitzarmen bana onetsi du gaur Laudioeko udalarekin eta Arabako Lautadako eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrillekin, genero indarkeriaren egoeretan egin beharreko esku hartzea koordinatzeko.

Hitzarmen horien bidez, Arabako Foru Aldundiak biktimentzako baliabideak eta zerbitzuak indartzearen aldeko apustuarekin jarraitzen du, bai eta Arabako erakundeekiko lankidetzaren bidetara eustearen alde ere, haien arteko lankidetzaren bermatzeko eta indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eskuragarri dauden baliabide material eta pertsonal guztien koordinazioa ahalbidetzeko.

Gizarte laguntza integrala genero indarkeriaren biktima diren emakume guztien eta haien kargura dauden adingabeen eskubidea da, haien jatorria, erlijioa edo beste edozein baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial zeinahi dela ere; eta horrek esan nahi du arretako, larrialdiko, laguntzako, harrerako eta oneratzeko integraleko gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea dutela.

Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskutik eta Hegoak Foru Zerbitzuaren bitartez, konpromisoa hartu du herri horietan bizi diren biktimei laguntza psikologikoko eta orientazio juridikoko zerbitzuak eskueran jartzeko, genero indarkeriaren egoeren aurrean. Era berean, beste zerbitzu batzuen artean, honako hauek eskaintzen ditu: gizarte- eta hezkuntza-arloko esku hartzea, gizarte laguntza eta harrera pisuen mantentzea, bai eta, gizarte larrialdiko egoeretan, egoitza baliabideen foru sarean harrera egitea ere.

Bestalde, udalak eta kuadrilla sinatzaileek Hegoak Foru Zerbitzua emateko beharrezkoa den espazio fisikoa eskaintzen dute, esku hartzeak koordinatzeko beharrezkoak diren beste izapide batzuek gain.

Arabako Lautadako Kuadrillan bizi diren biktimei, GOFEK aurrez aurre emango die arreta psikologikoa, Agurainen zein Gasteizen; orientazio juridikoa, berriz, nola hiriburuan hala telefono bidez eskaintzen ahal izango da.

Laudion eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako udalerrietan aurrez aurre emango da bai arreta psikologikoa bai orientazio juridikoa; hain zuzen ere, Laudion, Oionen eta Guardian eskaintzen ahal izango da.

Era berean, Laudioekin izenpetutako hitzarmenari esker, Aiarako Kuadrillako udalerrietan bizi diren biktimek ere jaso ahal izango dituzte zerbitzu horiek guztiak.

Foru Aldundiak 62 langaberen kontratazioa sustatu du

Lau kontratutik bat 45 urtetik gorakoei egin zaie

Arabako Foru Aldundiak Arabako 62 langaberen kontratazioa sustatu du sektore pribatuko enpresetan, abuztutik azarora bitartean, osasun krisiak lan merkatuan eragin dituen ondorioak arintzeko programa baten bidez.

Programa horretan, zailtasun bereziak dituzten kolektiboei, hala nola emakumeei eta 45 urtetik gorakoei, kontratu mugagabeak egitearen alde egiten da, nagusiki. Hain zuzen, dirulaguntzak ematen zaizkie profesional autonomoei eta enpresa txiki zein ertainei, 9.000 euro artekoak, egiten duten kontratu bakoitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur eman dio onespena 2021eko abuztutik azarora bitartean jasotako eskaeren ebazpenari, eta 62 kontratu sustatu dira laguntzen bidez, zeinek 282.000 euro baino gehiago egiten baitute. Guztira sustatu diren kontratuen % 24,2, hain zuzen, 45 urtetik gorakoei egin zaizkie.

Kontratuak hainbat sektoretako enpresa txiki eta ertainetan eta autonomoen negozioetan egin dira: industria, merkataritza, aholkularitza enpresak, gestoriak, eraikuntza, nekazaritza eta abar. Enpresa horietako gehienak Gasteiz hirian daude, baina badaude Arabako beste herri batzuetan ere, hala nola Amurrión, Agurainen, Legutio, Zuian, Samaniegon, Dulantzín edo Arratzua-Ubarrundian.

Azken urteotan, programa horrek 230 kontratu baino gehiago sustatu ditu, langabezian dauden beste hainbeste arabarrenak.

Foru Aldundiak ikasketak egiteko joan etorriak egin behar dituzten 550 gazteri lagunduko die

Arabako Foru Aldundiak laguntza emango die aurreko ikasturtean batxilergoa edo erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren bat ikasteko bizi diren udalerrria ez den beste batera joan behar izan zuten lurraldeko 550 gazteri. Gobernu Kontseiluak ia 70.000 euroko laguntza horren ebazpena onartu du gaur, Lurralde Orekako Departamentuak eta Gazteriaren Foru Erakundeak batera abian jartzen dutena.

Gobernu Kontseiluak ebatzi du deialdi hau. Oraingo honetan, 85.000 euro zituen, iaz baino 15.000 euro gehiago, Gazteriaren Foru Erakundearen eta Lurralde Orekako Departamentuaren arteko lankidetzari esker. Aurrekontuaren igoera horri esker, iaz baino 66 gazte gehiagok izango dute laguntza. 476 ikaslek 145,10 euro jasoko dituzte, 65ek 203,14 eta 9k osagarri guztiak izango dituzte 290,20 eurora iritsi arte.

Aldundiaren helburuetako bat Lurralde Oreka lortzea da, edo, bestela esanda, Arabako herritar guztiek zerbitzu publikoak berdintasun-baldintzetan eskuratzea. Zerbitzu publiko horien artean garraio kolektiboa eta hezkuntza daude, eta, beraz, ikasketak egiteko bizilekua ez den udalerrri batera egindako joan-etorrien ondoriozko garraio-gastuei aurre egiteko erabiliko da laguntza.

Lurralde Orekako Departamentuak, ildo horren bidez, ikasleen bizileku-aldaketa saihestu nahi du, bizi diren herrian eta herrigunean egon daitezen sustatuz.

Diru-laguntza Araban erroldatuta dauden 25 urtetik beherako gazte adindunentzat da, baldin eta Lurralde Historikoan matrikulatuta badaude honako ikasketa hauek egiteko: Batxilergoa, erdi eta goi mailako Lanbide Heziketa arautua, Lanbide Hastapeneko Ikastaro Ofizialak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Ikasketa Ofizialak, Erdi Mailakoak, Erdi Mailako Kirol Irakaskuntzetako Ikasketa Ofizialak, Dantzako eta Erdi Mailako Musikako Ikasketa Ofizialak.

Arabako Foru Suhiltzaileek Logroñorekin eta Mirandarekin lankidetzan jarraituko dute

Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Suhiltzaileen eta Logroñoeko eta Miranda Ebroko udalen arteko lankidetzaren hitzarmena onartu du, hiru erakundeek suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuan lagun dezaten.

Arabako hiriguneen geografia eta demografia kontuan hartuta, eta edozein larrialdiren aurrean ahalik eta erantzun eta arretarik azkarrena bermatzeko asmoz, Arabako Foru Aldundiak administrazioen arteko lankidetzaren alde egin du beti, baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia ezin bestela haztatuz. Horretarako, hitzarmen horiek printzipio hauetan oinarritzen dira: arreta berehalakoa izatea, Arabako errealitatera egokitzea, baliabideen arrazionaltasuna eta ekonomia, sinergiak aprobetxatzea.

Helburu horrekin, 2006tik Miranda de Ebroko Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat dago, Miranda de Ebroko Suhiltzaileen Parkearen bidez Arabako zenbait eremuri ahalik eta azkarren eta ondoen erantzuteko.

Lan-ildo berean, 2016an erakunde autonomoa sortu zenetik aurrera, hitzarmen mota beraren bidez formalizatu zen Logroñorekin zegoen lankidetzaren harremana, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak zabalduz.

Foru Aldundiak 180.000 euroko laguntza emango die kuadrilla eta udalei euskaraz sozializatzeko programak abian jar ditzaten

Arabako Foru Aldundiak tinko darrai lanean Lurralde osoan euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko asmoz. Horretarako, Arabako eta Trebiñuko Konderriko kuadrillen eta udalen laguntza du, eta, teknikarien artean helburu horretarako pertsona espezifikoko bat izateaz gain, foru-aldundien laguntza ere badute, laguntza ekonomiko moduan jasotzen dutena.

Udal eta kuadrillek sustatutako euskararen bidezko sozializazio-programak garatzeko diru-laguntzen deialdi publikoa onartu du gaur Gobernu Kontseiluak. Sozializazioa pertsonen arteko elkarrekintza da, betiere hizkuntza komunikazio-tresna izanda.

Laguntza horien helburu nagusia, gizarte-programak eta -jarduerak bultzatzea da, hiztunak eta haien sareak aktibatzeke eta lurraldean euskaraz bizitzeko aukerak bermatzeko baldintzak sortzen jarraitzeke. Ekintzak aisialdiarekin eta kirolarekin, administrazioarekin, sozio-ekonomiarekin, euskarazko hedabideekin eta kultura edo gazteriarekin lotuta egon daitezke.